


Euskal AEko industria % 1,4 hazi zen 2003ko ekitaldian, kopuru errealetan

Industriako langile landunak % 0,4 gehitu ziren 2003an; horrenbestez, 247.000 gora ziren azkenean

Euskal AEko industria-jarduerako balio erantsiak % 1,4ko hazkunde errealak izan du 2003an, eta aurreko urtean (% +0,2) baino gehiago hazi da, Eustatek landutako datuen arabera. Jokaera hori ez da berdina izan hiru lurraldeetan. Bizkaia eta Gipuzkoa, kopuru errealetan, % 2,7 eta % 0,8 hazi dira, hurrenez hurren; eta Araba aurreko urteko maila berean mantendu da.

Kopuru garbietan, ia 1.000 enplegu sortu dira 2003an, aurreko urtean baino % 0,4 gehiago. Industriako lanpostuak 247.000 dira, zortzi urtez hazkunde positiboak izan eta gero. Hartara, industriako enplegua 1984ko mailan da.

Industriako balio erantsi gordinaren bilakaera, oinarritzko preziotan, 1999-2003. Hazkundearen tasa errealak.



(a): Aurrerapena
Iturria: Eustat.

Bilakaera horretan, alde handiak ageri dira sektore batetik bestera. Batez bestekotik gora hazi dira sektore hauek: *kimika-industria* (% 13,8), *ehungintza eta jantzigintza* (% 8,3), *material elektrikoa* (% 6,7), *ez-metalezko industria* (% 6,6), *petrolioa fintzea* (% 6,3), *garraio-materiala* (% 6,1) eta *zurgintza* (% 5,0).

Beste alde batetik, aztertutako sektoreen artetik, bost izan dira tasa negatiboenekoak: *larruaren eta oinetakoen industria* (% -8,1), *papera, argitalpena eta arte grafikoak* (% -5,7), *metalgintza eta metalezko gaiak* (% -2,1), *metalezko eta ez-metalezko meak* (% -1,3) eta *kautxua eta plastikoa* (% -1,2).

**Industriako balio erantsi gordinaren bilakaera, oinarritzko preziotan.
Prezio finkoak. Euroak, milakotan.**

EUSKAL AEko	2002	2003(a)	Δ%
3. Petrolioa eta gasa ateratzea	0	0	-
4. Metalezko eta ez-metalezko meak	137.901	136.094	-1,3
5. Elikagai-industria	646.370	650.377	0,6
6. Ehungintza eta jantzigintza	90.277	97.761	8,3
7. Larrugintza eta oinetakogintza	12.289	11.291	-8,1
8. Zurgintza	228.541	240.062	5,0
9. Papera, argitalpena eta grafikoak	708.066	667.490	-5,7
10. Petrolioa fintzea	141.073	150.015	6,3
11. Kimika-industria	485.794	552.731	13,8
12. Kautxua eta plastikoak	880.046	869.615	-1,2
13. Ez-metalezko industria	467.524	498.571	6,6
14. Metalgintza eta metalezko artikulak	3.963.872	3.878.927	-2,1
15. Makineria	1.534.920	1.556.418	1,4
16. Material elektrikoa	805.565	859.460	6,7
17. Garraio-materiala	1.129.347	1.198.088	6,1
18. Bestelako manufaktura-ind.	431.496	446.651	3,5
19. Energia elektrikoa, gasa eta ura	897.028	924.032	3,0
Industria guztira	12.560.108	12.737.583	1,4

LURRALDE HISTORIKOAK	2002	2003(a)	Δ%
ARABA	2.588.271	2.589.255	0,0
BIZKAIA	5.199.152	5.339.129	2,7
GIPUZKOA	4.772.685	4.809.199	0,8

(a): Aurrerapena
Iturria: Eustat.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

Tel.: +34-945 017 513. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es